

PONENCIA: LEA ARTIBAI IKASTETXEA-MIKEL GOROSTIZAGA

Hau esanez has gitezke: globalizazioa, ezagutzaren gizartea, deskokatzea, aldaketaren abiadura, telekomunikazioen aurrerapena, I + Dren protagonismoa, etab... bezalako gertakariak oso aldaketa esanguratsuak ekartzen ari dira gizarte eta ekonomiaren arloetan. Edo alderantziz, gizarte eta ekonomiaren arloetan hurbil ditugun aldaketek gure ekoizpen-sarea, gure gizarte zibila, gure ikasleak... aipatutako gertakarietara egokitzeko prozesua eskatzen dute. Hitz egin beharko genuke, nola ez, hazkunde ekonomikoa eta gizarte-garapena lortzeko gero eta jende gehiagoren ustez faktorerik garrantzitsuena den horretaz: berriztapenaz, alegia. Seguru asko, atzekoz aurrera eta aurrekoz atzera errepikatu da hau hemen egun hauetan eta, horregatik seguru asko, azpimarratu beharko da. Begi-bistakoa den arren, beharrezkoa izaten jarraitzen du.

Gure gaurko ekarpena lotuago dago beharrezkotzat jotzen diren bi alderdirekin, biltzar honetan garatu behar izateko modukoak:

- Euskal lanbide heziketaren egitekoa etengabeko aldaketan, berrikuntzan eta aurrerapenean ari den nazio eta nazioarte mailako esparru batean.
- Mikroenpresa, berriztapena eta Lanbide Heziketako ikastetxeak.

Baina ahalik eta gehien ihes egingo dugu teorizazioetatik eta gauzatutako esperientzian zentratzen saiatuko gara. Izan ere, adibide bat besterik ez da, oso adibide ona izatea espero dugu, Lea Artibai bailaran gauzatzen saiatuko garen proiektu zabalago baten adibidea, alegia.

Lea Artibai Ikastetxeak egiteko hau du: **“haren ingurunea garatzeko eragile bihurtzea, bezeroei enpresa- eta instituzioen sarearekin lotura estua oinarri duen kalitateko prestakuntza bat eskainiko diena. Gizarte-ekimeneko erakunde bat gara, gure ingurunearen bizitza-kalitatearen eta gure langileen esku-hartzearen aldeko konpromisoa duena”**.

90eko hamarkadaren erdialdetik egitekoaren bi kontzeptu zehatz garatzeko lagungarri diren jarduerak aurrera eramanez dira ikastetxean: **“ingurunea garatzeko eragilea”**, alde batetik, eta **“enpresen sarearekin lotura estua”**, bestetik. Esparru honetan, Lea Artibaik bere gain hartzen du enpresa-sustapeneko unitate bat aktibatzearen ardura eta sustapen hauek ikastetxean garatutako teknologiekin lotzen ditu.

10 urte geroago Lanbide Heziketako ikastetxeetan eta unibertsitatean sustatu beharreko jarduerak bihurtu direnak horrela kontzeptualizatzen ziren (justifikatzen ziren hobeto esanda) Lea Artibain:

- Ez dago gure bailaran enpresa-sustapena bezalako elementurik bere gain hartzen duen instituziorik.
- Eskola bera 70eko hamarkadaren hasieran abian jarritako ekimen sorta batzuen herentzia da, gure eskualdeko populazio aktiboaren banaketa, enpleguaren % 55 lehen sektorekoa izateagatik desorekatua, orekatzeko asmoz.
- Eskolak behar diren baliabideak ditu, enpresa-sustapena baldintza egokietan gauzatzeko:
 - Ekintzailea izateko gai den giza kapitala.
 - Teknologia jakin batzuen eremuan ezagutzak izatea.
 - Zenbait jarduerak (ekoizpena, prototipoak egitea, software gaurkotuak,...) egiteko talde gaurkotuak.
 - Ekoizpen-sarearekin harremana, teknologiararen esparru batzuetan batez ere.
- Bestalde, Lea Artibai ikastetxea ondo jabetzen denez, gure eskualdean sare berria sortzeak:

- Gure ikasleak enplegura hobeto sartzera ahalbidetzen du.
- Gure irakasleen gaurkotze teknologikoa ahalbidetzen du.

Testuinguru honetan, 1997. urtean gure eskualdeko polimeroen sektoreko enpresa batzuek moldeen fabrikazioan jardungo duen enpresa bat sortu behar dela ikusten dute, haien jardura osatzeko, eta Lea Artibaik haren instalazioetan lan egingo duten hiru gazteren talde bat jartzen du abian, moldeen enpresa bat martxan jartzeko asmoz. Gazte horiekin irakasle batek jardungo du, dedikazioa eskainiz, eta tutore teknologikoaren funtzioak beteko ditu.

Gure eskualdeko hogeita bat gaztek osatzen dute LEABAI, elkartutako lanerako kooperatiba bat, gaur egun eta Gizaburuagan, gure eskualdeko herri txiki batean, egiten dute moldeak diseinatu, eraiki eta injektatzeko haien jardura. BFAko Berriztapen eta Ekonomi Sustapenerako diputatuaren, Rikardo Barainkaren, hitzetan, "enpresa-proiektu berriztatzailearen eredu bat, ez haren produktuarengatik eta ekoizpen-prozesuarengatik, sortzeko erarengatik, jardueren integrazioarengatik eta ingurunean duen integrazioarengatik baizik.

Esan beharrik ere ez dago, eskolarekin duen harremana geroago zehaztuko dugun proiektuak itxaropenak bete zituen, alde batetik, gure ikasleak enplegura hobeto sartzeko aukerei begira eta, bestetik, gure irakasleen gaurkotze teknologikoari laguntzeari begira. Izan ere, duela hilabete gutxi batzuk, proiektua abian jarri ondoren, proiektuari esleitutako irakasle tutoreak proiektuan bertan ikasten zuen, bai gai teknologikoetan (moldeen diseinua eta eraikuntza), bai kudeaketaren eremuan. Gai-zerrenda luze bat aipa genezake, proiektuaren garapenean gaur arte proiektuak teknologiaren aldetik gure ikastetxeari egin dion ekarpena adierazteko. Edonola ere, gure gaurko lankidetzaren hitzarmenean aipatzen ditugun alderdiak horren adierazle dira. Kontatu aurretik, Borja Cazalisek labur azalduko ditu bere enpresaren gaurko jardunaren xehetasunak.